



## **Etxauriko Udalak Eguzki Sarbil S.L. enpresak aurkeztu duen proiektuak sinaturiko baldintzak betetzen dituen aztertuko du**

Gaur, Nafarroako Aldizkari Ofizialak Sarbil Eguzki S.L. enpresak Sarbil inguruan sustatu nahi duen proiektu agroboltaikoa jendaurrean jartzeko izapidea ireki dela iragarri du. Etxauriko Udala, jada, promotorearekin sinaturiko baldintzak bere horretan errespetatu eta bermatzen direla ikertzen ari da.

Nahiz eta proiektua baimentzeko eskumena Nafarroako Gobernuaren Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiari dagokion, Etxauriko Udalak proiektuaren interes soziala eta ingurumenekoa hobetuko luketen aurretiko baldintza batzuk ezarri zizkion promotoreari; besteak beste, jabetza publiko-komunitarioa izatea, energia tokian eta inguruan kontsumitzeko bermea ziurtatzea edo bioaniztasuna zaintzeko proiektuetarako baliabideak bideratzea.

Promotorearekin sinaturiko baldintza horiek biltzen dituen dokumentua Etxauriko Udalaren web orrian kontsultatu ahal da. Orain, Sarbil Eguzki S.L enpresaren proiektua publikoa eta eskuragarria izanik, aipatu berri diren baldintza horiek guztiak bere horretan betetzen direla ikertzeari ekin dio Etxauriko Udalak.


### **Prozesu deliberatiboa martxan**

Aldi berean, proiektua baimentzeko eskumena Nafarroako Gobernuarena izan arren, Udala, apiriletik aurrera gauzatuko den deliberazio prozesu bat egituratzen ari da. Prozesu hori tokiko interes publikorako garrantzi berezia duten udal-eskumeneko esparruen inguruan egituratuko da eta, horregatik, Udalak prozesua antolatuko du, proiektuaren sustatzaileari ezarritako baldintzei buruz hausnartzeko.

Udalak herritarren iritzia entzun nahi du, proiektuak maila guztietan izan lezakeen eraginaren inguruko eztabaida erraztuz eta ahalbidetuz. Prozesuan, herritarrei irekitako hainbat partaidetza-saio egingo dira. Datozen asteetan, Udalak saioen ezaugarrien eta data zehatzen berri emateaz gain, herritarrak horietan aktiboki parte hartzera gonbidatuko ditu.

Etxaurin, 2026ko martxoak 3



  
Idoia Aritzala Etxarren  
Etxauriko Alkatea – Alcaldesa de Etxauri